



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

Aiaraldeako baserrien lanketa Lehen Hezkuntzako 6. mailan: Laudioko ikastetxeetako errealitatetik abiatuz, irakasleentzako gida didaktikoa

Egilea: Ander Cormenzana Aranzabal

Zuzendaria: Jurgi Kintana Goiriena

Leioan, 2018ko maiatzaren 16an

AURKIBIDEA

Sarrera.....	1
1. Esparru teoriko kontzeptuala.....	2
1.1. Baserrien inguruko bibliografia.....	2
1.2. Baserriaren lanketa hezkuntza ez formalean.....	3
1.3. Baserriaren gaia zergatik landu Lehen Hezkuntzako 3. zikloko 6. mailan..	4
2. Metodologia eta lanaren garapena.....	6
2.1. Laudioko ikastetxeetan kontraste lana eta informazio bilketa.....	6
2.2. Behin betiko txostenak sortzeko prozesua.....	9
3. Emaitzak: txostenen osaketa.....	10
3.1. Lanaren egitura.....	11
3.2. Txostenak osatzeko printzipioak.....	12
3.3. Aiaraldeako baserriak arkitektonikoki ezagutzeko txosten didaktikoa.....	13
3.4. Baserrietan eman den bizimodua lantzeko jarduerak.....	15
3.4.1. Baserritarren egutegiaren nondik norakoak.....	15
3.4.2. Baserriko elikadura.....	16
3.4.2.1. Baserri barnean elikagaiak lortzeko lanak.....	16
3.4.2.1.1. Sagardogintza.....	16
3.4.2.1.2. Esnearekin egindako produktuak.....	17
3.4.2.1.3. Ogigintza.....	18
3.4.2.2. Baserri kanpoan elikagaiak lortzeko lanak.....	18
3.4.2.2.1. Nekazaritza.....	18
3.4.2.2.1. Abeltzaintza.....	19
3.4.3. Baserrian eman den bizimodua aztertzeko jarduera batzuk.....	20
3.5. Irteerak.....	21
4. Egungo egoera eta aurrera begira.....	22
5. Ondorioak.....	23
6. Erreferentzia bibliografikoa.....	24

1. eranskina. Aurrekari bibliografikoak kontuan hartuta ikastetxeetako irakasleei erakutsitako planteamenduaren zirriborroa.....	27
2. eranskina. Laudioko ikastetxeetako liburuak baserriarekin lotura duten azterketa.....	28
3. eranskina. Baserrien aurre lanketa, eskoletan ezartzeko girotze-fitxak.....	32
4. eranskina. Aiaraldeko baserrien arkitektura txosten didaktikoa.....	42
5. eranskina. Laudioko mapa toponimikoa.....	64
6. eranskina. Laudioko baserrien txarteltxoak.....	65
7. eranskina. Baserriak arkitektonikoki ikertzeko ikerketa-txostena.....	67
8. eranskina. Baserritarren kanpo egutegia.....	72
9. eranskina. Baserriko barne zein kanpo lanak lantzeko txosten didaktikoa.....	74
9.1. Baserria eta sagardogintza.....	74
9.2. Baserria eta gaztagintza.....	82
9.3. Baserria eta ogigintza.....	91
9.4. Baserria eta nekazaritza.....	97
9.5. Baserria eta abeltzaintza.....	109
10. eranskina. Baserriko barne zein kanpo lanak lantzeko ariketa txostena.....	118
10.1. Baserria eta sagardogintza.....	118
10.2. Baserria eta gaztagintza.....	129
10.3. Baserria eta ogigintza.....	144
10.4. Baserria eta nekazaritza.....	161
11. eranskina. Irteerak eta protokoloa.....	172
12. eranskina. Baserriko bizimodua gehiago ulertzeko ariketa txostena.....	182

Aiaraldeako baserrien lanketa Lehen Hezkuntzako 6. mailan: Laudioko ikastetxeetako errealitatetik abiatuz, irakasleentzako gida didaktikoa

Ander Cormenzana Aranzabal

EHU/UPV

Lan honen helburua Lehen Hezkuntzako 3. zikloko 6. mailako irakasleentzako baserrien inguruko gida didaktiko bat osatzea izan da, zenbait txosten teoriko-praktikoz osatua. Horretarako, baserrien inguruko bibliografia aztertu da ekarpenaren zirriborroa osatzeko. Azken honekin Laudioko 5 ikastetxetara hurbildu eta bertan irakasleekin proposamenaren inguruko hartu-emanak izan eta lantzen dutenaren zein testu-liburuen puntu komunak behatu dira. Hori horrela, irakasle gidako txosten definitiboak sortzeko prozesua abiatu da, zeinetan aurretiaz baserria landu ez den modu batean ezagutzea den emaitza bi gida-lerro nagusi jarraituz. Lehena, Aiaraldeako baserriak arkitektonikoki ezagutzeko txostena. Bigarrena, bertan eman diren lanetan zentratuz, oinarri teorikoaz zein ariketaz osatutako txosten didaktikoak gertuko errealitatetik baserriko bizimodu tradizionala ulertzeko eta jarduera osagarriekin batera ikuspegi soziala ezagutzeko.

Euskal baserria, ondare kulturala, euskal gizartea, Aiaraldea, Lehen Hezkuntza

El objetivo de este trabajo ha sido elaborar una guía didáctica, compuesta por informes teórico-prácticos, sobre el caserío para el profesorado de Educación Primaria de tercer ciclo de sexto curso. Para ello, se ha analizado la bibliografía sobre el caserío para así poder completar un borrador de dicha propuesta. Con este último, se ha ido a los 5 centros escolares de Llodio, se han intercambiado opiniones sobre la propuesta con el profesorado y se ha contemplado tanto lo que ellos trabajan como los contenidos de los libros de texto, trazando así unos puntos comunes. Esto así, se ha llevado a cabo el proceso definitivo con el cual se ha obtenido un resultado que facilita trabajar el caserío como nunca antes se ha hecho partiendo de dos guías de ruta. La primera, un informe para poder conocer arquitectónicamente los caseríos de Aiaraldea. La segunda, dado cuales han sido los trabajos realizados, por medio de informes didácticos completados mediante una base teórica y actividades se entendería la vida tradicional del caserío partiendo de la realidad del entorno. Además, se plantea conocer el enfoque social del caserío mediante ejercicios adicionales.

Caserío vasco, patrimonio cultural, sociedad vasca, Aiaraldea, Educación Primaria

The aim of this study has been to create a didactic guide, formed by some theoretical-practical reports, about farmhouses for teachers of the 6th grade of the 3rd cycle of Primary Education. For that, bibliography about farmhouses has been examined to form a draft of the contribution. With the draft 5 schools from Laudio have been approached, discussing the proposal with the teachers and observing the aspects in common of it; not only with what they work on but also with the textbooks. With that the process of creating the final reports for the teacher's guide has started. All this has led to work on the farmhouse in a way previously unknown, following two main guidelines. The first, a report to learn about the architecture of the farmhouses in Aiaraldea. The second, and focusing on the tasks earlier fulfilled, some didactic reports provided with a theoretical basis as well as exercises; in order to comprehend from a close reality the lifestyle of the farmhouse and, using complementary activities, to be aware of the social perspective.

Basque farmhouse, cultural heritage, Basque society, Aiaraldea, Primary Education

Sarrera

Sormen berrikuntza motako Gradu Amaierako Lan honetan baserrien inguruan dauden ikerketa eta lanketa teorikoak bildu eta Laudioko Lehen Hezkuntzako 6. mailako irakasleentzat gida didaktiko bat osatu da, zenbait txosten teoriko-praktiko biltzen dituena. Hasierako hipotesia, Aiaraldean baserrien lanketa eman ez dela izan da. Hipotesi hori kontrastatu eta baieztatu ondoren, baserriaren lanketa gorpuztuko duen irakasleentzako gida eta ikasleek burutzeko ariketa txostenak sortu ditut. Laudioko Lehen Hezkuntzako zentroetako 6. mailako irakasleentzako eta ikasleentzako izango da konkretuki, Aiaraldeako baserriak lantzean oinarritzen delako Laudio izanik abiapuntua. Laudioko zentroetan aurrera eramatera bideratutako lanketa egin nahi izan dut arrazoi nagusi batengatik. Izan ere, bertakoa naiz eta nekazal inguruarekiko dagoen ezagupen eza ikusita, nire ekarpenaren laguntzaz baserriarekiko zein baserri munduarekiko ezagupena zein kontzientziazio handitu nahi dut. Gainera, Laudio Aiaraldean biztanle gehien dituen herria da, INEren arabera biztanleriaren %52,7a herri honetan kontzentratua baitago.

Laudiok azken mende honetan aldaketa izugarria bizi izan du. Historikoki eta XX. mende hasierararte, nekazaritzan (polilaborantzan zein minifundismoan), abeltzaintzan eta baso-ustiapenean oinarritutako ekonomia zuen. Industrializazioarekin batera jardunbide tradizionalen bazterketa progresiboa ematen joan zen, eta industria zein komertzio berrien sorrerak demografia zein ekonomia garapena eragin zuen. Horrela, Espainiako beste probintzietako biztanle asko finkatu ziren herrian, eraikin zaharrak, baserriak barne, bota eta eraikin masifikatu berriak eraikiz gaur egun zonaldeko erdigune industrial dena bihurtuz (Salazar, Salcedo, Heredia eta Ortega, 2014).

Belaunaldi gutxi batzuen buruan, historikoki bizimodu tradizionala zena alde batera utzi da. Honek ez du esan nahi ahaztu beharreko ezagutza izan behar denik; baizik eta, onartu eta oraindik horretan dirauten gutxiengandik ulertu beharreko eginbeharra. Gaur egun, erdigunetik kanpo dauden hainbat nekazal auzo daude oraindik, eta hauetan kokatzen dira baserri eta baserriar gehienak. Baserriak ezagutzearekin batera, bertako baserriarren bizipenak ezagutarazi nahi ditut, ikasleen egunerokoarekin bat ez datorren bizimodu honen onarpena lortu nahi dudalarik. Hori horrela, sortu ditudan txostenek etorkizun hurbilean erabilera bat izatea gustatuko litzaidake, irakasle bakoitzak bere aukeraketa eta moldaketak eginez bere eguneroko hezkuntza errealitatera hobekien egokitu ahal izateko.

1. Esparru teoriko kontzeptuala

Ahaztua. Ez dago hitz egokiagorik baserriaren egoera azaltzeko. Mendeetan euskal gizarte tradizionalaren oinarrietako bat izan dena, isolatuta gelditu da jendartean zein eskoletan. Baserria eskolan lantzen ez den ideiarekin, baserriei buruzko bibliografia dagoela baieztatu nahi izan dut, 1.1. puntuan finkatua, hortik abiatuta irakasleentzako gida bat osatzeko. Horrekin batera, irakasleentzako gida hau gorpuzteko hezkuntza ez formalean, museoetan adibidez, baliabideak daudelaren hipotesia baieztatu nahi izan dut, 1.2. puntuan azalduta dagoelarik. Irakasle gida horren aurre-planteamenduaren zirriborroa izanik, hasierako hipotesia, baserrien gaia Aiaraldean lantzen ez dela, ikertzea izan da, 2.1. puntuan zehaztua.

1.1. Baserrien inguruko bibliografia

Baserriaren inguruko bilaketa bibliografiko baten ostean, aurkitu ditudan liburuen artean bereizketa bat egin daitekeela ikusi dut. Alde batetik, baserriaren arkitektura lantzeko balio dezaketenak topatu ditut; eta bestetik, baserriko bizimoduaren inguruan informatzen dutenak. Liburuen bilaketa, Aiaraldeako baserrien inguruko informazioa lortzeko helburuarekin egiten dut hasiera batean, eta ostean baserrietan eman ohi zen bizimoduaren inguruan gehiago informatzeko.

Baserrien arkitektura lantzeko balio duten liburuetatik hasita, *Euskal Herriko baserriaren arkitektura laneko Historia eta tipologia* (Santana, Larrañaga, Loinaz eta Zulueta, 2001a) eta *Baserriak* (Santana, Larrañaga, Loinaz eta Zulueta, 2001b) liburuak dira nire aburuz dauden liburuetatik ikerketa osatuenetarikoa eta argiena osatzen dutenak. Lehenengoan euskal baserria definitzen da, hau da, historiko zein arkitektonikoki nolakoa izan den deskribatu eta baserriaren oinarritzko tipoak eta aldaerak zehazten dira.

Hala ere, honen inguruko azterketa zehatzago bat ikus daiteke Atlas Etnografico de Vasconia-ko *Casa y Familia en Vasconia* (Etniker eta Labayru fundazioa, 2011) liburuan etxearen estruktura zein etxea eta lurraldea ataletan. Azken liburu honek, euskal baserrien inguruko bilketa zabalena daukala esan daiteke.

Santana, Larrañaga, Loinaz eta Zulueta (2001b) liburuan oinarritzko tipo eta aldaera batzuetako baserri batzuen ikerketa garatua zehazten da, horien artean daudelarik Aiaraldeako herri batzuetako baserri konkretu batzuk. Honekin lotuta, nire zonaldeko baserrien datu orokorrak edo argazkiak besterik gabe erakusten dituzten beste liburu

asko daude, eta bertatik ere ideia batzuk atera ditut. Adibidez: *Baserria Aiaran* (Aguirre, Padura eta Mendia, 2004), *Estudio Geografico del Valle de LLodio* (Ochoa, 1965), *Etxea* (Etxegoien, 2016), *Recuperacion de la memoria colectiva: Laudio-Llodio* (Salazar, Salcedo, Heredia eta Ortega, 2014), *Arquitectura Popular Española II* (Flores, 1987) edo *Llodio, imagenes para la memoria* (Eguiluz eta Montes, 1999).

Baserria beste ikuspegi batetik ikusteko, baserriko bizimoduaren inguruan informatzen duten liburuen artean hainbat liburu interesgarri daude. Liburu hauek komunean dituzten puntuen artean baserriko lekuen erabilpena eta baserri barneko zein kanpoko lanak nabarmentzen direla ikusi dut. Aurreko horrez gain, Berriochoa-k (2014) baserrien sorrera aipatzeaz gain, baserrian eragin duten faktoreak, Gipuzkoa aldeko testuingurua eta baserriarren alderdi sozial zein ideologikoa adierazten du. Baserriaren historia modu laburtuagoan azaltzen du Santana-k (1993), eta baserriaren lanketa burutu nahiko lukeen edonorentzat da gomendagarria oso argi azaltzen delako baserriaren historia eta bertan eman den bizitza eta lanak. Bestalde, Dueso-k (1990) (1995) nekazal jendartearen ezaugarrien inguruko informazioa zehazten du, baserriarren bizitza nolakoa zen eta euren rolak zein sinesmenak ulertzeko baliagarria dena.

Baserriaren egungo egoeraren nondik norakoak nire ekarpenean txertatu nahi izan ditut eta horri begira baserriaren desagertze prozesuaren inguruan hainbat ikerketak daude (Alberdi, 2001, 2002, 2009; Ruiz eta Galdós, 2005). Aipatzekoa da ere, Arzoz eta Alonso-k (1998) baserriaren etorkizun beltzaren inguruan egiten duten gogoeta.

1.2. Baserriaren lanketa hezkuntza ez formalean

Eskola gehienetan baserri eskola batera joatearen apustua egiten da, eta bereziki Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatan ematen da. Hala ere, askotan ez gara hain urrun joan behar gertu izan dezakeguna aztertzeke. Nire aburuz, baserria modu egokian lantzea eremu hurbileko aukerekin egitean datza, bertako errealitatea kontuan hartuta eta inguruko museoek zein kultura eragileek eskaintzen dituzten aukerekin. Kasuak kasu, gertatu daiteke lekuan lekuko erraztasunak ez izatea nahikoak, eta kasu hauetan pixka bat haratago joatea eskatu dezake egoerak.

Ezin daiteke aiantzi ikastetxean bertan lantzetik haratago doan hezkuntza. Eskualdeko zein Euskal Herriko beste museo batzuk ematen duten eskaintza ez dut baztertu. Hainbat bisitatu ditut, horien artean daudelarik, Igartubeiti museoa, Arteako Ekomuseo etnografikoa, Artziniegako etnografia museoa eta Orozkoko etnografia museoa.

Hauetako bakoitzean erakusten dena ikusirik, hainbat alderdi nire ekarpenean txertatzeko oso baliagarriak iruditu zaizkit, bereziki baserriaren bizimoduaren ikuskera osatzeko, 3.4. puntuan azaldu bezala.

Hezkuntza ez formalean zehazki baserriko bizimodua lantzeko materiala Baserria Natura Eskola Bizia¹ proiektuak eta San Telmo museoak² eskaintzen dute. Bestetik, zeharkako modu batean baserriko bizimodua espezializazioak kontuan hartuz lantzeko HAZI agentziako In Agro Salute proiektua³ edo *Nekazariak Eskolan*⁴ egitasmoa zein Kutxa Ekogune⁵-ko hezkuntza programa, Baratze Parkea sareko informazioa eta Garaikoa aplikazioa erabili daitezke material didaktiko gehiago lortzeko.

Aurreko material honez gain, 2014-2015eko ikasturteko Gradu Amaierako Lan bat (Arenas, 2015) eta *Baserriko tresnak eta lanak* (Moreno, Ochoa eta Madinabeitia, 2017) lanean eskaintzen den materiala goraipatuko nituzke.

1.3. Baserriaren gaia zergatik landu Lehen Hezkuntzako 3. zikloko 6. mailan

Lehen Hezkuntzako curriculumak (236/2015 dekretua) bere edukien baitan kokatuko luke baserria, nahiz eta termino moduan zuzenean aipatua ez izan. Baserriak ideia eta kontzeptu asko barnebiltzen ditu eta horregatik bi konpetentziarekin, batez ere, lotura duen arren, beste eduki zein helburu askorekin harremana du.

Aipatutako konpetentzia hauek arterako konpetentzia eta konpetentzia sozial eta zibikoa dira. Lehendabizikoari erreparatuz gero, eta baserria euskal eraikuntza eta ondarea dela kontuan harturik, honen inguruan jakin-mina eta errespetu jarrera sortu nahi duen helburua hau aurki genezake: “Gogoetaren eta kritikaren bidez balioestea ondare artistiko eta kulturaleko elementuak, herrien nortasunaren eta kulturen oinarri diren aldetik, herrien arteko hartu-emanaren, kulturen arteko elkarriketaren eta esperientzia partekatuen harian” (236/2015 dekretua: 26.or.). Honekin lotu nahiko nukeen ideia da, gaur egun gure kultura-ondarea ezagutzea, ulertzea eta babestea ezinbestekoa dela, egungo belaunaldiek eta hurrengoek galdu ez dezaten (Ezkurdia, Perez eta Bilbao, 2013).

¹ <https://natureskolabizia.com/material-didaktikoa/>

² https://www.santelmomuseoa.eus/uploads/Actividades/Primaria/BASERRIA_Eus_Ikas.pdf

³ <http://www.hazi.eus/eu/component/content/article/79-general/4463-in-agro-salute-proiektuaren-ekintzak.html>

⁴ <http://www.nirea.eus/eu/nirea-akordioa/ekimen-guztiak-proiektuak/11051-nekazariak-eskolan>

⁵ <http://www.ekogunea.eus/>

Lehen Hezkuntzako garaian ikasleek Euskal Herriko bizimodua eta gizartea ezagutu zein ulertu behar dute, eta baserriak garrantzia handia izango du honetan. Izan ere, konpetentzia sozial eta zibikoari lotuta hurrengo osagaia azaltzen da: “Norberaren gizartea ezagutzea, eta bereziki haren iraganeko eta egungo eraketa, antolamendua eta funtzionamendua; gizartea zer lurraldetan eta nola ezarrita dagoen jakitea, haren iraganaren kontzientzia hartzea eta gizakien ekintzak gizartean sortzen dituen arazoan aurrean modu positiboan jarduteko gaitasuna lantzea” (236/2015 dekretua: 25.or.). Honen arrazoia da mendeetan euskal gizarte tradizionalaren epizentroa izanik, eta bere egonkortasunaren ardatz bezala hartuta, baserria familia bizitzeko etxea baino askoz gehiago izan dela (Santana, 1993).

Argi eduki behar da curriculum honetan euskal curriculumaren berariazko edukiak, hau da, euskararen eta euskal kulturaren edukiak, unibertsalak diren curriculumeko edukiekin batera lantzen direla. Curriculumean baserriak izan beharko lukeen garrantzia ikusarazi nahi dut horregatik, euskal kulturaren pieza ezinbesteko bat baita. Izan ere, euskal kultura ezaugarritzeko erabiltzen diren ezaugarriak hiru multzo nagusitan banatzen dira, baserria hauetako baten barruan kokatzen delarik (Bilbao, 2003).

Curriculumak baserriarekin hartu-emana izan dezakeela ikusita, eta baliabideen bilaketa egin ostean argi esan daiteke baserriaren nondik norakoak Lehen Hezkuntzako 3. zikloko 6. mailan irakasteko, gutxi direla irakasle batek eskuragarri izan ditzakeen baliabideak. Ikastetxeetan gai honi garrantzia ematen ez zaiola ikusi dut, eta ondorio argi bat atera ere. Gure aurreko belaunaldien bizimodua ahaztuta geratu da; ahaztua, mundu globalizatu eta teknologiko honetan.

Beste herrialde batzuetako historia ikasten da, eta nik ere ikasi egin nuen bere garaian, gureaz ezer gutxi ikasiz. Nire zalantza da ea non geratzen den gure arbasoen historia. Benetan nortzuk garen edota nondik gatozen galderei bezalako erantzuna eman gabe, gure herriaren milaka urteko historia eta ohiturak ezezagunak dira gure ikasleentzat. Irakasleok gara ikasleonen premia horiei erantzuna eman beharrekoak, baina aurretiaz baliabide batzuk izan gabe gutxi izango dira lan-karga guzti hau gainean hartzeko aurrerapausoa emango dutenak.

Nire ekarpenak, zulo beltz sakon hori argizatzen saiatu nahi du, irakasleak kontzientziatu eta hain sakona ez den zulo txiki horretara salto ematera lagundu. Nire eskualdean baserrien inguruko lanketarik ez dago, eta ikastetxeetan ematen zaion garrantzia eskasa izanik, lehen pauso hori eman dut irakasleei laguntza eskaintzeko.

2. Metodologia eta lanaren garapena

Metodologia sailean nire ekarpena burutzeko jarraitu dudana prozedura finkatzen da. Honetan bi atal nagusi desberdintzen dira. Lehenengoan, Laudioko ikastetxeetan egindako kontraste lana eta informazio bilketa azaltzen da. Bigarrenean, behin betiko txostenak sortzerakoan jarraitutako irizpideak azaltzen dira.

2.1. Laudioko ikastetxeetan kontraste lana eta informazio bilketa

Baserrien inguruko bibliografia aztertzerakoan baserria bi bloke nagusitan banatu daitezkeela ondorioztatu dut. Alde batetik, eraikin bat denez geroztik arkitektonikoki landu daiteke. Bestetik, bertan bizi izan diren pertsonen babesleku izan denez, pertsona hauen bizimodua eta honekiko baserriak bete izan duen funtzioa aztertzea. Hori jakinik, baserria bi bloke hauen arabera lantzeko zirriborro bat osatu nuen hasieran eta hainbat moldaketa burutu nizekion eman zitezkeen zailtasunak kontuan hartuz.

Nire ideiarekin bat zetorren zirriborro bat osatu ostean, 1. eranskinean ikusgai dagoena, Laudioko ikastetxeetako 6. mailako tutoreekin, eurek irakasten baitute Gizarte Zientzien edota Natur Zientzien arloak, kontaktatu dut bi helburu izanik. Lehenengoa, nire planteamenduaren zirriborroa erakustea zein azaltzea eta honen inguruan tutoreak ekarpenak duen bideragarritasunaren inguruan bere iritzia jasotzea. Bigarren helburua, ikastetxe horretako 6. mailako Giza Zientzietako eta Natur Zientzietako testuliburuetakoa informazio biltzea. Izan ere, baserria landuz gero aukera gehien eskaini dezaketena arloak bi hauek izan daitezkeela uste izan dudalako.

Laudioko 5 ikastetxeetan elkarrizketak 2018ko martxoan burutu ditut. Hurrengo taulan ikastetxe bakoitzean norekin elkarrizketa mantendu dudana eta honek zentroan duen ardura zehazten da.

Ikastetxea	Bertan elkarrizketatua	Ardura
Fabian Legorburu Ikastetxea	B. G.	Zuzendaria
La Milagrosa Ikastetxea	E. B.	LH-ko 6. mailako tutorea
Lamuza Ikastetxea	A. G.	LH-ko 6. mailako tutorea
Lateorro Ikastetxea	G. A.	LH-ko 6. mailako tutorea
Laudio Ikastola	E. Z.	LH-ko 6. mailako tutorea
	A. G.	LH-ko 3. mailako tutorea
	S. U.	LH-ko 4. mailako tutorea

1. taula. Ikastetxeetan elkarrizketatutako irakasleak eta euren ardura.

La Milagrosa ikastetxeko 6. mailako tutoreak planteamendua begi onez ikusi du. Izan ere, lanketa osatu bat iruditu zaio eta historia zein elikadura lantzeko oso egokia eta bideragarria dela aipatu dit. Gehitu du ekarpen honen atal bat lantzen hasi nahi izanez gero, baserri munduaren inguruan gutxi dakiela eta horri begira ondo legokeela horren inguruko mintegi edo hitzaldi bat edukitzea gaiaren inguruan gehiago informatzeko. Gainera, Lehen Hezkuntzako maila batera bideratu ordez Lehen Hezkuntzako zikloetako mailetan urtero lantzen joateko potentziala ikusi dio ekarpen honi, eta horrekin guztiz bat nator, nahiz eta kasu honetan ekarpena maila zehaztu baterako izan. Azkenik, zerbait martxan jarri nahi izanez gero arazo gabe egiteko aukera luzatu dit.

Lamuza ikastetxeko 6. mailako tutoreari oso interesgarria iruditu zaio nire planteamenduaren azalpena. Bereziki, ikastetxe honetan ikasle atzerritar asko daudela aipatu dit eta gure ohituren inguruan gehiago ikasteko modu egoki bat izan daitekeela. Lantzen dituzten liburueta baserria lantzen ez dela azaldu dit, baina etorkizunera begira baserriaren inguruko planteamendua entzuteko eskuak zabalik agertu da. Gehitzekoa da, aurten *Nekazariak Eskolan* egitasmoko gaztagile bat 6. mailako ikasleekin tailer bat egotekoa zela aipatu didala.

Lateorro ikastetxeko 6. mailako tutoreari oso interesgarria iruditu zaio nire planteamendua. Proiektuka lan egiten dutenez, ikasleek liburuak zuzenean ez dituztela erabiltzen aipatu dit, baina liburueta edukiak erabiliz proiektuak burutzen dituztela. Hori horrela, proiektuak antolatzeko erabiltzen duten irakasle gida luzatu dit eta zerbait martxan jarri nahi izanez gero berarekin kontaktatu eta arazo gabe egiteko aukera jakinarazi dit.

Laudio Ikastolan 6. mailako tutoreak liburuak aurten *Eki* proiektuarekin hasi direla azaldu dit eta liburuak erakusten egon bitartean aipatu dit baserria ez dela landu maila honetan eta liburueta ez dela agertzen. Hala ere, planteamendua oso gustukoa izan du, bera baserri mundua ezagutzen duelako, eta baserria lantzeko aukera gehiago ikusten duela 3. mailan eta 4. mailan. Hori dela eta, 3. mailako zein 4. mailako tutoreekin hitz egin dut eta bereziki 4. mailako tutoreak interes berezia jarri du. Izan ere, lantzen duten gai bat eskualdea eta eskualdeko herriak ezagutzea delako, eta horrekin batera bertako ondarearen lanketa osagarria burutzeko txostenak egiten dituzte. Honen baitan, duda gabe, baserria sartu liteke eta lana bukatzerakoan berarekin kontaktuan jartzeko eta materiala erakusteko esan dit.

Fabian Legorburuko ikastetxeko 6. mailako tutore batekin ez, baina zuzendariarekin mezu bidez hitz egin ahal izan dut. Nire planteamendua zertan datzan azaldu nion gainetik eta drive bitartez euren Gizarte Zientzietako zein Natur Zientzietako testuliburuak elkarbanatu zizkidan arazo gabe.

Bestalde, Laudioko ikastetxe bakoitzeko 6. mailako Gizarte Zientzietako zein Natur Zientzietako liburuetan azaltzen dena baserriarekin erlazioa zuzena duen edo ez, eta ematen dutenetik abiatuta baserrien ekarpena nola planteatu daitekeen ikusteko ikastetxeetako liburuen azterketa burutu dut. Hurrengo lerroetan ikastetxe bakoitzak erabiltzen duen testuliburu eta baserriarekin lanketa bideratzeko dituen edukiak aipatzen dira. Hala ere, Natur Zientzietako testuliburuetan ez denez baserriarekin harremana duten edukirik agertzen, ez ditut aipatzen.

Lamuza ikastetxeak zein Fabian Legorburu ikastetxeak 6. mailan Anaya argitaletxeko *Hazi eta hezi bat eginik* proiektuko liburuak erabiltzen dituzte. Gizarte Zientzietako liburuko bigarren hiruhilekoan, ekonomia-sektoreak lantzen dira, eta konkretuki produkzio-sektoreak Euskal Autonomia Erkidegoan, honen baitan daudelarik nekazaritza, abeltzaintza eta baso-ustiapena, baserriko bizimoduaren oinarri izan direnak. Horrez gain, kontsumoa eta konkretuki kontsumo arduratsua aipatzen dira, baserrian eman den autokontsumoarekin harremandu daitekeena. Hirugarren hirulekoan, Espainia XIX., XX. eta XXI. mendean azaltzen da, baita Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izandako egoera. Azken hau lantzerakoan inguru hurbileko bizimodua aztertuz hiria eta nekazal eremuaren konparaketatik abiatuta baserria barneratzeko aukera legoke.

Latorro ikastetxean Ikasmina argitaletxeko *Bizigarri* proiektuko liburuak daude. Gizarte Zientzietako liburuan ere baserriaren gaia sustraitzeko antzeko puntuak agertzen dira. Lehena, Espainiako XIX. mendeko eta XX. zein XXI. mendeko gizartearen lanketa ematen da, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoari erreferentziarik ez egin. Bigarrena, ekonomia-sektoreen azalpena da, eta honetan lehen sektorea azaldu eta Espainian zein Europan daukan garrantzia adierazten du. Horrez gain, testuliburuko ariketen artean Ekin proiektua agertzen da amaieran, eta honetatik abiatuta udalerrri zein eskualdeko ekonomia-sektoreak aztertuta, eskualdeko nekazari zein abeltzainen egoera ezagutzeko aukera emango luke.

Laudio Ikastolan Txanela proiektua erabili izan da, baina aurren *Eki* proiektuarekin hasi dira 6. mailan. Hiruhileko bakoitzeko liburuetan aukera bana ikusten dut baserria landutako kontzeptuekin elkartzeko. Lehenengo liburuan, *Gu gara lurra bera*, hiria eta

nekazal eremua konparaketatik abiatzea; bigarren liburutik, *Non jaio, hala bizi*, elikadura alorretik abiatuta nekazaritza eta abeltzaintza jomuga izatea; hirugarren liburutik, *Ekin eta ekin goaz aurrera*, makinetatik abiatuta nekazaritza eta abeltzaintza baserri munduan erabili izan direnak ezagutzea.

La Milagrosa ikastetxean proiektuetan oinarritutako hezkuntza aurrera eramaten dute, eta nahiz eta libururik ez erabili, aurreko urteetako liburuetako hiruhilabeteko planteamendua jarraitzen dute; hurrenez hurren, Europako geografia, Historiako Aro garaikidea eta modernoa XVIII. mendetik XIX. mendera, eta osasuna bertan lantzen direlarik elikadura zein gorputza.

Aipatu bezala, ikastetxe batzuetan Aiaraldeako baserrien lanketarekin hasteko hainbat aukera daude. Lantzen dituzten edukietako batzuk baserrien ekarpenarekin bat egin dezaketela ikusita, hurrengo taulan ikastetxeek dituzten puntu komunak ikus daitezke.

Edukia	Ikastetxea				
	Lamuza	Fabian Legorburu	Latorro	Laudio Ikastola	La Milagrosa
Lan-sektoreak edo ekonomia-sektoreak.	X	X	X		
Espainiako XIX. eta XX.mendea.	X	X	X		X
EAEko XIX. eta XX.mendea.	X	X			X
Elikadura eta kontsumo arduratsua.	X	X		X	X
Antzinako makinen ikerketa.				X	
Hiria eta nekazal eremua konparatzea.	X	X	X	X	

2.taula. Ikastetxeek baserria lantzeko dituzten eduki komunak.

Hori horrela, hurrengo lau fitxak sortu ditut baserriaren gaia barneratzeko: lehenengo lan sektoretik abiatuta baserria agertzea; Espainiako eta EAEko aro garaikide eta modernoan zegoen bizimoduaren baitan baserriko bizitza azaltzea; elikadura eta kontsumo arduratsuan bertako baserrietako produktu ekologikoetatik abiatzea; hiria eta nekazal eremua arteko alderaketa egitea baserria izanik nekazal eremuko erreferentzia.

2.2. Behin betiko txostenak sortzeko prozesua

Ikastetxeko tutoreek nire planteamenduaren zirriborroa begi onez hartu zutela ikusi eta gero, eman dizkidaten erantzunekin eta burututako azterketa bibliografikoan lortutako informazioarekin baserria arkitektonikoki zein bertan eman den bizimodua lantzeko

behin betiko txostenak sortzeko prozesua abiatu da. Hain zuzen ere, irakasleek oinarri teorikoa izateko gai bakoitzeko txosten teoriko bat egitea aurreikusi dut eta horrekin batera bizimodua gehiago lantzeko gai bakoitzeko ikasleentzako ariketa txosten bat egitea. Gainera, ariketa txostenek irteera edo tailer bat egin aurretiko ariketak eta ostean egitekoak izatea pentsatu dut. Hori horrela, tutoreak gai bakoitzeko erabiltzeko txosten didaktikoa txosten teorikoa eta ikasleentzako ariketa txostena osatuko lukete.

Arkitekturako txostena sortzeko, 3.2. puntuan azaldu bezala, hainbat adituren laguntza erabiltzea pentsatu izan dut, eta 1.1. puntuan goraiapatutako Santana, Larrañaga, Loinaz eta Zulueta (2001a) (2001b) liburuen laguntza ezinbestekoaz gain, beste hainbat liburu eta informazioa kontuan hartzea.

Bestalde, baserrian eman den bizimodua lantzeko, 3.3. puntuan ikusgai dagoena, txosten didaktikoak egiteko azterketa bibliografikoan topatutako zenbait liburu erabiltzera ez naiz mugatu. 1.2. puntuan aipatutako hainbat webgune zein proiektuetako informazioa edo ariketak eskuratzea eta barneratzea pentsatu dut, txostenak osatzeari begira. Gehitu beharra dago, txosten didaktikoekin batera planteatzen den irteera edo tailerra burutzeko museoetako baliabideak, Aiaraldeako jai-egunak eta beste hainbat proiektu edo egitasmo kontuan hartu ditudala irakasle-gidan irakasleek baliabide desberdinak izateko.

Puntu hauek finkatzerakoan ez dut ahaztu Heziberri 2020 curriculum ofizialean zehaztutakoa kontuan hartzea. Bereziki, *Oinarrizko konpetentziak, curriculum-edukiak eta euskal curriculumaren berariazko edukiak* sailean (236/2015 dekretua II. eranskina, 27-28 orriak) finkatutako hainbat ideia planteamendu honetan barneratzen saiatu naiz. Horri begira, puntu honetan hurrengo irakur daiteke:

Euskal Herriak berezko eta berezkoz hartutako kultura-adierazpenak ditu... elikaduraren eta gastronomiaren ezaugarriak, janzteko moduak, jendeztatze moduak, ekoizpen-sistemak, antolaketa soziala eta politikoa, bizikidetzara-arauek eta zuzenbidea, hizkuntza eta ahozko eta idatzizko literatura, jokoak eta kirolak, jaialdiak, musika eta dantza, erlijioa, mitoak eta sinboloak... (236/2015 dekretua II. eranskina, 27. orria)

3. Emaitzak: txostenen osaketa

Atal honetan ekarpen honen egitura zehazten dut txostenak osatzeko printzipioekin batera eta planteamenduaren laburpen oso bat, txostenetan zer egingo den eta zein irteera edota tailer gomendatzen ditudan azalduz.

3.1. Lanaren egitura

Baserrien aurrekari bibliografikoak aztertu eta nire planteamenduaren zirriborroa, 1. eranskinean finkatutakoa, burutu eta moldatu nuen. Ostean, Laudioko ikastetxeetako hainbat irakaslerekin hitz egiteko eraman nuen. Euren iritziak jaso eta testuliburuetan edo hiruhilabeteko bakoitzean lantzen dutena aztertuta, 2. eranskinean ikusgai, nire ekarpenean ematen diren puntuekin jarraitzeko hainbat jarduera proposatu ditut. Komunean dauden puntu horiek kontuan hartuz, girotze-fitxak prestatu ditut 3. eranskinean ikus daitezkeelarik, baserriaren gaia lantzen hasteko.

Baserria lantzerakoan bi sail nagusi bereizten ditut; arkitektonikoki ezagutzea eta bertan emandako bizimodua kontuan hartuta ulertzea. Lehena, Aiaraldeako baserriak arkitektonikoki ezagutzeko irakasleentzako zein ikasleentzako izango litzatekeen txostena finkatu dut. Horretarako, Aiaraldean ezagutzen diren baserri tipo guztien inguruko informazioa ematen duen txostena osatzeko prozesua 3.3. puntuan azaltzen da eta 4. eranskinean aurkitu daiteke.

Baserriak ikastetxean arkitektonikoki ezagutzeaz gain, Laudio abiapuntu moduan hartzen denez, txostenean agertzen diren Laudioko baserriak Laudioko mapa toponimikoan finkatuko lituzkete. Mapa toponimikoa, hau da, lekuen izenak azaltzen dituena, 1/12.000 eskala izango luke, baina eskala txikiago batean agertzen da 5. eranskinean Din A4 batean. Laudioko baserriak mapa toponimikoan finkatzeko txarteltxoak izango lituzkete ikasleek eskura, azken hauek 6. eranskinean aurkitu daitezkeelarik. Gainera, ikasleren bat edo bere senideren bat baserri baten jabea izan daitekeela kontuan hartuta, baserri baten ikerkuntza osotu bat burutzeko ikerketa txostena, 7. eranskinean aurkitu daitekeena, finkatu dut.

Nire planteamenduko bigarren saila, 3.4. puntuan azaldua agertzen dena, baserrian eman den bizimodua aztertzearekin bat dator. Hots, baserria bizitzeko zein lan egiteko toki moduan ikustaraztea. Hori posible egiteko *baserritarren egutegia* osatuko lukeena izango lukete eskura irakasleek ikasgelan jartzeko. Honetan, barne egutegia eta kanpo egutegia banatuko lirateke. *Kanpora begirako egutegiak*, 8. eranskina, tokian tokiko baserriarekin zerikusia duten jai-egunak edo tailerrak zein museoen tailerren datak erakutsiko lituzke. Aldiz, *barnera begirako egutegiak*, baserritarrei eginbeharrak finkatu izan dizkiena, Ilargi egutegiarekin bat datorren egutegi biodinamikoa izango litzateke.

Baserrian eman den bizimodua autokontsumoan oinarritua izan dela kontuan hartuz, baserriko elikagaiak lortzeko lanei eman diet garrantzi berezia. Honen inguruan 3.4.2. puntuan irakurri daiteke, bizirauteko lan hauengandik lortzen zituztelako elikagaiak. Hori horrela, baserrian eman den bizimodua lantzeko txosten didaktikoak bi gida-lerro kontuan hartuta burutu ditut, baserri barnean elikagaiak lortzeko lanak izanik bata eta bestea baserri kanpoan elikagaiak lortzeko lanak.

Baserri barruan aurrera eramandako lanak sagardogintza, esnearekin loturiko elikagaiak, gaztagintzari emanik garrantzi nagusia, eta ogigintza izango lirатеke. Hauek lantzeko txosten didaktikoa bana prestatu dut, hauek 3.4.2.1. puntuan gaintetik azaldu ditut, gomendatzen ditudan irteera edota tailerrekin batera. Irakasleek txosten didaktiko bat izango lukete, oinarri teorikoa izateko txosten teorikoa izanik, 9. eranskinean, nahi duten modura egokitzeko eta ikasleek irteera edota tailerra aurretik eta ostean burutzeko ariketa txostena, 10. eranskinean. Aldiz, baserri kanpoan ematen diren ekintzak nekazaritzarekin edo abeltzaintzarekin dute lotura. Baserri barneko lanekin egin bezala, irakasleak txosten teorikoa izango du, 9. eranskinean ikus daitekeena, eta ikasleek ariketa txostena, baina bakarrik nekazaritza lantzeko, 10. eranskinean finkatua dagoena. Hala ere, abeltzaintza lantzeko ere, nekazaritzarekin finkatu bezala, irteerak edo tailerrak gomendatzen ditut eta hauek 3.4.2.2. puntuan azaltzen dira.

Aurreko lerroetan aipatutako baserri barnean zein kanpoan elikagaiak lortzeko lanak lantzeko irteeren edo tailerren inguruko protokolo bat zehaztu dut irakasleentzat. Honetan, zein museorekin edo norekin kontaktatu behar den azaltzen da, euren kontaktua, eta webgunearen esteka izatekotan, dituzten baldintzak eta zenbat lehenago eurekin kontaktatu behar den finkatuz 11. eranskinean. Baserriaren bizimodua ez denez bertan eman diren elikagaiak lortzeko lanetara mugatzen bizimodua hobeto ulertu ahal izateko ariketa txosten osagarri bat proposatu dut, 12. eranskinean ikusi daitekeena.

3.2. Txostenak osatzeko printzipioak

Txosten didaktikoak osatzeko hainbat printzipio finkatu ditut gidalerro bat izateko, baserria lantzean adarkadura ugari daudela konturatu naizelako. Nire planteamenduaren zirriborroaren nondik norakoak eta irakasleek emandako iritziak kontuan hartuta txosten didaktikoak burutu ditut curriculumeko oinarritzko konpetentziak (236/2015 dekretua II. eranskina, 16-26 orriak), hau da, zehar-konpetentziak eta konpetentzia espezifikokoak, aztertzearekin batera.

Hori horrela, nire ekarpeneko txosten didaktikoekin hurrengo oinarrizko gaitasunak beteko lirateke:

- Hizkuntza eta komunikaziorako konpetentzia.
- Matematikarako konpetentzia.
- Zientziarako konpetentzia.
- Teknologiarako konpetentzia.
- Konpetentzia sozial eta zibikoa.
- Arterako konpetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.
- Elkarbizitzarako konpetentzia.
- Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.

Helburu didaktiko eta edukiak ez ditut curriculumentik atera. Ikastetxeetako testuliburuetan finkatutako puntuak ikusita nik finkatutako printzipioak dira txostenak egiten joan ahala. Hurrengo helburu didaktiko hauek ditu nire planteamenduak:

- Aiaraldeako baserri tipo eta aldaerak ezagutzea eta bereiztea.
- Herriko auzoak eta toponimia ezagutzea.
- Baserritarrak eta baserriaren bizimodua orokorrean ezagutzea.
- Lehen sektorean eta baserrietan burututako lanak eta burutzen dituztenak ezagutzea.
- Emakumeak duen eta izango duen garrantzia barneratzea.
- Museoko jarduerak zein jai-egunak baloratzea.
- Kontsumo arduratsurako eta animaliekiko errespeturako jarrera bultzatzea.
- Ingurune naturalarekiko errespetua eta ikasleen interesa sorraraztea.

Edukiei erreparatuz gero, hurrengoak finkatu ditut:

- Baserrien arkitektura.
- Herriko geografia eta ospakizunak.
- Baserriaren historia XV. mendetik gaur egunerainoko testuingurua.
- Baserrian egin ohi izan diren lanak.
- Ilargi egutegia eta egutegi biodinamikoa.
- Baserriko elikadura.
- Baserriko ohiturak eta bizimodua.
- Kontsumo arduratsua.
- Ingurune naturalarekiko errespetuzko jarrera.
- Landa eremuaren eta hiri ingurunearen ekarpenak gizartean.

3.3. Aiaraldeako baserriak arkitektonikoki ezagutzeko txosten didaktikoa

Nire ekarpeneko puntu garrantzitsu bat, baserrien tipo eta aldaerak ezagutzea izan da hasiera batetik. Horretarako, Santana, Larrañaga, Loinaz eta Zulueta (2001a) liburua hartu dut oinarri teoriko moduan txosten teorikoa egiteko. Hala ere, Aiaraldeako baserrien arkitektura txostena egiteko bi arazo nagusiren aurrean topo egin dut.

Lehena, txosten teorikoan agertzen den teoria 6. mailako ikasleek ulertzeko modukoa izateko moldatzea. Bigarrena, aipatutako liburu horretan zehaztutako baserri tipo eta aldaeren adibideak zehaztea, Aiaraldea eskualdeko oso adibide gutxi aipatzen baitira.

Hasiera batean txosten didaktiko hau klasean landu eta gero zonaldeka baserriak ikertzen joatearen ideia izan nuen, eta horri begira zonaldeka baserri desberdinak bisitatzeko planteamendua egiteko aditu batekin mezu bidez kontaktatu nuen. Hain zuzen ere, EHUko Geografia, Historiaurre eta Arkeologia saileko departamenduko idazkaria den Sergio Escribano Ruiz irakaslearekin jarri naiz kontaktuan. Berak Aiaraldeako baserri garrantzitsuenetariko baten ikerketa bat zuzendu zuela ikusita, berarekin mezu bidez jarri nintzen kontaktuan martxoaren 18an. Arabako Foru Aldundiak burututako Laudioko auzo bakoitzeko baserrien zerrenda⁶ erraztu zidan alde batetik; eta bestetik, Eusko Jaurlaritzako Ondare programa⁷, non ondare diren Aiaraldeako hainbat eraikin agertzen diren, horien artean baserriak daudelarik.

Txosten didaktikoa burutzeko arkitekto baten laguntza behar nuela ikusi nuen, hainbat kontzeptu niretzako ere ulertzea abstraktuak zirelako. Hori dela eta, Ane Meaza arkitekto laudioarrarekin 2018ko otsaila, martxoa eta apirila bitartean mezu bidez kontaktuan egon naiz, arkitektura txosten hau moldatuz eta bion artean zuzenketak eginez. Kontzeptu teoriko konplexuak txostenean errazten laguntzeaz gain, arazo nagusienarekin lagundu nau; Aiaraldean dauden baserri mota eta aldaeretako baserrien adibideak finkatzen. Izan ere, kontuan hartu izan dudak faktore bat, aldaeretako adibideak zehatzak izatea izan da. Baserri askok moldaketak izan dituzte urteetan, eta horregatik tipo edo aldaera desberdinetako ezaugarriak izan ditzakete. Txostena burutzeko informazioa Sergio Escribano irakasleak eskainitako baliabideetatik, hainbat liburuetatik eta baliabide digitaletatik lortua izan da.

Aipatu bezala, nire ideia hasiera batean txosten didaktikoa landu ostean, Laudion dauden baserriak zonaldeka bisitatzea izan da. Horretarako, ikerketa txostena izan beharko lukete ikasleek. Halere, ez zait bideragarria iruditu baserria ondo ikertzeko barrutik ikertu beharko litzatekeelako, eta baserri gehienak pribatuak direnez oso zaila izango litzateke. Hori dela eta, planteatzen dudak egitasmoa, baserriak teorikoki landu ostean, landutako aldaera horietako baserriren bat Laudion egonez gero Laudioko mapan kokatzea da. 5. eranskinean dagoen Laudioko mapa aurrean izanik baserri

⁶http://www.araba.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1223988243173&language=eu_ES&np=1&pagename=DiputacionAlava%2FPage%2FDPA_listado

⁷<http://www.euskadi.eus/app/ondarea/eraikitako-euskal-ondarea-nabaria/>

bakoitzaren txarteltxo, 6. eranskinean ikusgai, dagokion lekuan finkatuko litzateke, Laudioko toponimia ezagutzeko aukera emanek ikasleei. Txarteltxo hauetako bakoitzean baserriaren izena, kokalekua, tipo edo aldaera eta garaia zehazten dira.

Gainera, hasiera bateko ikerketa txostenaren planteamendua aukeran uztea egokia iruditu zait, 7. eranskinean hain zuzen, ikasleren bat edo bere senideren bat baserri batean bizi baitaiteke eta hau ikertzeko aukera egokia izan litekeelako. Izan ere, baserri arkitektonikoki lantzeko aurkitu dudana beste arazo nagusi bat baserri jabeen kontaktuak lortzea izan da.

3.4. Baserrietan eman den bizimodua lantzeko jarduerak

Baserrian eman den bizimodua lantzeko bertan eman diren lanetan oinarritu naiz batez ere, baserri barnean elikagaiak lortzeko lanak eta baserri kanpoan elikagaiak lortzeko lanak bereiztuz. Hauek egutegiaren araberrakoak izan dira betidanik, eta horregatik *baserriarren egutegia* dena finkatu dut. Hala ere, baserrian eman den bizimodua ez da horretara mugatu eta hori da nire arazoia beste jarduera osagarri batzuk proposatzeko.

Nire ekarpenean lan horien inguruko txosten didaktiko bana burutu dut irakasleentzako gida honetan. Txosten didaktiko hauetan alde batetik irakasleek azalpenak eman ahal izateko oinarri teorikoa duen txosten teorikoa dago, 6. mailako ikasleek ulertzeko modukoa izatea saiatu naizelarik. Bestetik, ikasleentzako ariketa txosten bat, irakasleak ariketa txosten hauen erantzunak izango dituelarik. Honekin batera, baserriko lan horiek nola egiten diren ikusteko irteera edo tailerrak proposatzen dira, hauetara joan baino lehen egiteko jarduerak eta ostekoak izanik ariketa txosten horietan.

Nagusiki bi irteera edo irteera eta tailerra proposatu dut gai edo txosten bakoitzeko, bata eskolatik at eta bestea eskolan bertan izatea saiatu naizelarik. Adibidez, museo batzuen jarduerak edo jaiegun konkretu batzuk data zehaztuz ematen dira, *baserriarren kanpo egutegian* finkatutakoak, eta gertatu daiteke ezin bertaratzea. Eskolan burutzeko tailerrak Hazi, Bionekazaritza eta Naturaba elkarteek martxan jarritako *Nekazariak Eskolan* egitasmoak antolatuko lituzke. Lehenengo sektorea lanbidea duten pertsonen euren bizimodua eta egunerokoa azaltzen dute eskolan. Aurten egitasmoak Lamuza ikastetxean tailerra burutu du, eta hurrengo urtean tailerra egiteko eurekin kontaktu dut.

3.4.1. Baserriaren egutegiaren nondik norakoak

Egutegia izan da garaiak ezarri izan dituen leku guztietan, eta baserriarrak eginbeharrak honetara egokitu izan ditu mendeetan. Nire aburuz, egutegiaren baitan

baserritarrek bi jarduera nagusi burutu dituzte. Lehen, *kanpora begirako egutegia* izango litzateke, produktuen edota animalien salerosketarekin lotua. Hori dela eta, nire ekarpeneko egutegian, 8. eranskinean hain zuzen, lekuan lekuko baserriarekin zerikusia duten jai-egunak hurrengo ikasturtean, hau da, 2018-2019 ikasturtean, izango duten ustezko datan eta baserri mundua lantzearekin bat datozen museoetako tailerren data finkatu ditut.

Bigarrena, barne edo betebeharrei loturiko egutegia, baserritarren ardatza izan den Ilargi-egutegiarekin bat datorren egutegi biodinamikoarekin izanen du oinarri. Horri begira, hilabeteen izenen zergatia zehazten duen informazioa eta ariketak agertzen dira “Baserria eta Nekazaritza” txosten didaktikoan. Izan ere, Ilargi egutegiak egutegi biodinamikoaren erlazio zuzena dauka sasoiko produktuak eta garaian garaiko asteko nekazal lanak zehazten baititu. Horregatik, sasoiko produktuen egutegia zein egutegi biodinamikoa egongo lirarteke ikasgelan, hauen funtzionamendua hobeto ikusteko.

3.4.2. Baserriko elikadura

Elikadurak ezinbesteko papera jokatu izan du baserrian eta aldaketa nabarmenak izan ditu mendeetan zehar, berdina ez izanik Euskal Herriko txoko desberdinetan. Baserrietan elikagaiak lortzeko egin beharreko lanak baserri barnean edo kanpoan egitekoak izan dira, eta baserriaren eraikuntzarekin eragina izan duten lanak zehaztu ditut hurrengo puntuan.

3.4.2.1. Baserri barnean elikagaiak lortzeko lanak

Baserri barneko elikagaiak lortzeko lanetarako lehengaiak aurretiaz emandako baserri kanpoko lanetatik eratorriak badira ere, baserri barnean prozesatuak direnez geroztik, sailkapen honetan ezartzea aukeratu dut. Hauek sagardogintza, ogigintza eta esnearekin loturiko elikagaiak dira.

3.4.2.1.1. Sagardogintza

Nire ekarpeneko txosten didaktikoko txosten teorikoan sagardogintzaren eta baserri-dolareen informazioa eskaintzen da, dolarea duten baserriak baitira zaharrenetarikoak. Horrez gain, sagardoa antzina nola egiten zen, dolarearen prozesua barne, eta dolare baserri motak azaltzen dira beste bitxikeri batzuekin batera. Ikasleentzako ariketa txostenean, irteera aurretik eta ostean burutu beharko lirartekeen jarduerak agertzen dira.

Sagardoa baserri dolarean nola egiten den ikustea oso zaila bada ere, Igartubeiti baserri dolareak eskaintzen dituen jardueren⁸ artean sagardoa tradizionalki nola egiten zen erakusten da. Hori dela eta, museo honetara bertaratu eta eskaintza honen inguruan galdetu izan nuen. Urriaren lehenengo zein bigarren astean egiten da “Sagar astea”, dolarea funtzionamenduan jarritz ikasleei sagar zukua nola ateratzen den, dolare baserriaren zehetasunak eta bizimodua zein kirikoketa erakusten zaizkie.

Gipuzkoaraino joateko aukera ez izanez gero, baina eskolako ordutegitik at, Laudion 2017.urtean lehenengoz egindako “Sagar Eguna” modu on bat da sagar zukua nola egiten den prozesua ikusteko. *Baserritarren kanpo egutegian* finkatutako egun honetako erakusketan sagarrak birrindu ostean prentsetan sartu eta sagar zukua nola lortzen den ikusi eta dastatu daiteke.

3.4.2.1.2. Esnearekin egindako produktuak

Baserriko barne lan hau txosten teorikoan bi puntu nagusitan banatzen da, Artzantza Euskal Herrian eta gazta nola egin, pausoak, izango liratekeenak. Artzantza Euskal Herrian puntuan esnea tradizionalki baserrietan gaztan eraldatuta, gehienbat, kontsumitu izan dela azaltzea eta baserriko artzantza beste artzantzetatik bereiztean datza. Ariketa txostenean esnearen eta gaztaren prozesuaren inguruko hainbat ariketa agertzen dira.

Aiaraldean gaztaren prozesua aurrera nola eramaten den ikusteko bisita gidatuak egiten dituzten hainbat gaztandegi bisitatzeko aukera dago, baina horietatik batek euskaraz burutzen ditu bisitak eta garrantzia berezia du. Izan ere, Izoria baserrian gazta desberdinak egiteaz gain, ezta egiten da eta erleek baserrian izan duten garrantzia, “Baserria eta Abeltzaintza” txostenean, 9. eranskinean azaldua, ezin daiteke ahantzi behar. Gaztak egiterakoan ematen den prozesu guztia azaldu, prozesua erakutsi eta ikasleek gazta mota ezberdinak eta ezta frogatzeko aukera daukate.

Bestetik, *Nekazariak Eskolan* egitasmoarekin kontaktatuz gero, gaztagintzan aditua den pertsona batekin kontaktuko lukete eurek eta eskolara joateko abisua emango liokete. Azken hau, eskolara hurbilduko litzateke adostutako egunean, eta prozesu osoa azaldu eta gazta nola egiten den erakutsiko lieke ikasleei. Eskolako ordutegitik kanpo, Amurrioko herrian ospatzen den Artzain eguna aukera ona da gaztagintzarekin loturiko eginbeharrak ikusteko, egun hau *baserritarren kanpo egutegian* finkatuta dagoelarik.

⁸ <http://www.igartubeitibaserrria.eus/es/files/igartubeitiko-hezkuntza-programa-2017-2018>

3.4.2.1.3. Ogigintza

Ogigintza lantzeko irakaslearen txosten teorikoan hainbat puntu jorratzen dira; hurrenez hurren, garia eta ogia Euskal Herrian, ogiaren prozesua eta komertzializazioa. Lehen puntuan baserrien hasieratik XVI. mendean ogia egiteko erabilitako produktuek izandako gorabeherak azaltzen dira. Bestetik, ariketen txostenean hainbat jarduera osagarri agertzen dira, gomendagarriak direnak bisita aurretik eta ostean egiteko.

Proposatzen ditudan bi irteerak eskolatik at burutzeko izango lirateke. Lehena, ez luke data finkorik, baina astean zehar egiteko egun bakarra osteguna izango litzateke. Orozkoko Presatxu baserrian ogia artisau eran suzko labean nola egin den ikustea izango litzateke, ostegunetan nola egiten den erakusteko aukera ematen baitute euren baserria erakustearekin batera. Gainera, irteera baliatuko litzateke Orozkoko museo etnografikoa bisitatzeko ostegun edo ostiraletan burutzen baitira bisita gidatuak.

Bigarrena, egun desberdinetan eta eskolaz kanpoko data zehatzetan izango litzateke. Maroñoko herrian egin izan den erakusketa⁹ da, gariaren prozesua guztia ikusteko balio duena. Izan ere, lehenengo egunean garia antzina nola mozten zen eta garia jo egiten dute gari aleak lortzeko. Beste egun batean Añeseko erro tara eramaten dira gari aleak ehotzeko eta horrela gari-irina lortu egiten dute. Azkenik, gari-irina horrekin ogia egiten dute. Ikastetxeko ordutegitik kanpo izanik guraso edo tutoreen parte-hartzea eskatuko luke. Antolatzaileekin kontaktu dut pasa den urtean ez baitzen burutu eta momentuz erantzunaren zain nago. Irteera baliatuta, inguruko baserriak ikertzeko aukera legoke.

3.4.2.2. Baserri kanpoan elikagaiak lortzeko lanak

Baserri kanpoan elikagaiak lortzeko lanak baserrian eta baserritik gertu edo ez oso urrun egon diren zelaietan edo belardietan burututako lanak dira. Hauek bi multzo nagusitan sailkatu ditut, nekazaritza eta abeltzaintza lanak bereiztuz. Azken hauek izan dira betidanik baserriko jarduera nagusiak, eta bata bestearekin elkar baldintzatu izan dira.

3.4.2.2.1. Nekazaritza

Nekazaritza landuko lukeen irakaslearen txosten teorikoak nekazaritza eta baserria Euskal Herrian, nekazaritzan eragina duten faktoreak, Ilargi egutegia eta nekazaritzako tresnak puntuak bilduta ditu. Orokorrean baserriak eta nekazaritzak izandako garapena azaltzen da, eta ikasleentzako ariketa txostenean txosten teorikoan azaltzen diren puntuekin erlazioa daukaten hainbat jarduera daude. Horietako batzuetarako

⁹<https://vimeo.com/46603400>

nekazaritzaren inguruan informazio gaurkotua eta interesgarria duten proiektuen webguneak bilatu ditut; hala nola, Kutxa Ekoguneko webgunean Baratze Parkea¹⁰ sareko informazioa eta Garaikoa aplikazioa¹¹ eta Hazi fundazioko In Agro Salute¹² proiektuko materiala oinarri hartzea eskola baratza proiektu baten sorrerarako. Kasu honetan, ariketa txosteneko hainbat jarduerak estekak dituztenez, azken hauek taldean eta formatu digitalean burutzeko izango lirateke.

Nekazaritza lantzean garrantzi berezia ematen zaio kontsumo arduratsuari, eskoletan eduki moduan landua izaten baita. Horri begira eskolatik at burutzea planteatzen dudana irteera Laudion Egin elkarte ekologiko¹³-ko kideren batekin elkarrizketatzea da. Kasu honetan, elkartearen balioak eta nondik norakoak azaldu eta gero elkarteko ekoizle, nekazari, batengana egingo litzateke irteera eta azken honek bere bizimodua, eguneroko lanak eta dituen arazoak azalduz. Bestetik, *Nekazariak Eskolan* egitasmoarekin kontaktatuz nekazari desberdinak eskolara joateko aukera ematen da.

Baserriko bizimoduan emango liratekeen lan guzti hauek gaur egun baserri bakar batean ez dira ematen, espezializatorantzko bidea hartu izan baita. Hori dela eta, nekazariak eta baserritar kutsu gehiago izan dezaketen baserritarrekin harremana edukitzeko ostegunero Laudion egiten den merkatuan aurki daitezke euren produktuak salduz. Beraz, aukera bat izan daiteke bertara hurbildu eta ikasleek baserritarrei galderak egitea.

3.4.2.2.2. Abeltzaintza

Irakasleak abeltzaintza lantzeko txosten teorikoan abeltzaintza eta baserria Euskal Herrian, baserriko abereak zein animaliak eta abeltzaintzarako tresnak azaldu eta aurkituko ditu. Nekazaritzako txostenean bezala ikuspegi orokor bat ematen da, baserriek hasieratik abeltzaintzarekin izandako garapena azalduz.

Kasu honetan ez dago ikasleentzako ariketa txostenik, abere asko baitaude eta ez baitzait bideragarria iruditu. Gainera, esnea ematen duten animaliak gaztagintzarekin erlazionatzen direnez, “Baserria eta gaztagintza” txostenean landuko lirateke. Gaztagintzaren irteera, 3.3.2.1.2. puntuan azaldua, Izoria baserrira joatea edota *Nekazariak Eskolan* egitasmoko gaztagilea eskolara hurbiltzea izango litzateke. Gehitzekoa da, Izoria baserriaren kasuan, ezta egiten dela, beraz eztagintzaren nondik

¹⁰<http://baratzeparkea.ekogunea.eus/eu/sarea/baratzezaintza/se-3/>

¹¹<http://www.baratzekoestreinaldihandiak.com/all>

¹²<http://www.hazi.eus/eu/component/content/article/79-general/4463-in-agro-salute-proiektuaren-ekintzak.html>

¹³<https://laudioonegin.wordpress.com/>

norakoak ikusteko aukera dagoela. Abereekin erlacionatutako baserriko lanak ezagutzeko beste modu bat, *Nekazariak Eskolan* egitasmoarekin kontaktatzea da. Abereekin espezializatua dauden pertsonak eskoletan tailerrak burutzen dituzte, euren lanaren nondik norakoak azalduz.

Txerriaren kasuan, eskolako ordutegitik kanpo ematen diren bi jardueren bidez txerriaren erabilera ulertarazi dezakete ikasleek, azken hauek *baserriarren kanpo egutegian* zehazten direlarik. Lehena, Artziniegako museo etnografikoak eskaintzen duen jarduera bat da, txarriboda konkretuki. Bigarrena, Laudion ospatzen den San Blas egunera bertaratzea da.

3.4.3. Baserrian eman den bizimodua aztertzeke beste jarduera batzuk

Baserritarren bizimodua aztertzerakoan baserri barnean zein kanpoan elikagaiak lortzeko lanetan zentratu banaiz ere, benetan garaiko bizimodua zena ez da azaleratzen. Kontuan hartu behar da baserri bakoitzean bizimodua desberdina izan dela; hori dela eta, egin daitekeen bakarra baserritarren bizimodua modu orokor batean ulertaraztea da.

Bizimodua modu orokor batean ulertarazteko helburuarekin hainbat museoetara hurbildu naiz. Hauen artean baserria historikoki nolakoa zen ikasleei ikustarazteko Igartubeiti dolare baserria da egokiena. Hain zuzen ere, XVI. mendean baserri barneko antolaketa eta bizimodua nolakoa zen irudikatzeke aukera ematen du goitik behera berreraikita dagoelako.

Artziniega Etnografia museoak, herrian eman diren lanbideak erakusten ditu, baserriari leku bat eskainiz. Gela batean baserriko sukalde baten prototipoa agertzen da eta gainean logela. Gainera, baserri munduarekin erlazioa duten hiru barne-lan (ogigintza, txarriboda eta gaztagintza) egiteke tresnak agertzen dira, eta beste gela batzuetan nekazaritzarekin zein abeltzaintzarekin lotutako makina berezi asko agertzen dira. Museoak eskaintzen duen jardueren artean azaroko azken igandean egiten den txarriboda erakusketa eta otsaileko azken igandean egiten den museo-bizia jarduera goraiatu beharrekoak dira. Azken honetan aurten baserriaren atalean etxeko bizia sukaldearen inguruan ematen zela eta sukaldean egoten ziren tresna guztiak azaldu dira. Arazo nagusia azalpena gaztelaniaz eta pixka bat eskasa izatea da.

Orozkoko Etnografia museoan nekazal eraikinrentzako azalpen panel bat agertzen da, garrantzi berezia emanik XV. eta XVI. mendeko baserri gotiko-errenazentista den Urigoitiko Munikogoikoa baserriari. Garai horretako beste baserri batzuen adibidea eta

beste garaietako baserrien informazio laburra eta adibideak dituen txostena eskuratu daitezke. Bizimoduari begira ur-erroten, eztingintzaren eta ogigintzaren panelak izateaz gain, beste interesgarri batzuk daude; horien artean, nekazaritzarekin lotua dagoena, erlijioarekin loturiko sinesmenen zein sinesmen zaharren berri ematen duena eta gorularien ingurukoa. Horrez gain, haranean eta baserritarren artean eragina izan zuten hiru lanbideri garrantzi berezia ematen zaie; bata ikazkinak zein egurgileak, bestea artzainak eta hauen bizimodua, eta azkena abeltzainak.

Arteako Ekomuseoan baserri baten barneko gelak hobekien erakusten dituen museoa da, baina guztia solairu batean dagoenez ez da baserriaren bizimodua hain ondo irudikatzen. Baserri barneko bizimoduaren irudikapena ez da oso antzinakoa, XIX. mende ingurukoa gutxi gorabehera. Bisita gidatuan korta eta sukaldea beheko aldean egongo litzatekeela esan da; erdiko solairuan egongela, amonaren zein aitonaren logela eta nesken zein mutilen logela; eta gainean ganbara eta trastelekua. Hauetako bakoitzean elementu desberdin ugari daude ikusgai eta horrez gain hainbat modulu. Ekomuseoak parke tematikoa du, baina orain zaharberitze lanetan dago. Hori horrela, ez dut uste momentuz pena merezi duenik museo honetara joatea.

Museoak alde batera utzita, baserriaren bizimoduan garrantzia berezia duten hainbat punturen inguruko jarduerak burutu ditut, 11. eranskinean agertzen direnak. Horietako bat, baserrian eman diren zereginetan edo etxekolanetan zentratuz, betidanik egon den rol banaketa ezagutzea du helburu, baserrian emakumeak izan duen garrantzia goraiatzeko. Beste puntu garrantzitsu bat egungo egoera aztertzearekin du zerikusia. Lanketa honen helburu nagusienetakoa baserriko bizimodua bizimodu zaharkitua, eta era berean bizitzeko leku zaharkitua, ez dela pentsaraztea da. Horren aurrean, egungo egoeraren berri eta etorkizunera begira baserri bizimoduan eman den garapena eta gaur egungo egoera azaldu dezaten hitzaldi bat antolatuko litzateke. Hizlariak Aiaraldeko Alberto Campo amurriarra eta Inaño Urkijo audioar baserritarra izango lirateke. Azken hauen kontaktua 11. eranskinean dagoen protokoloan zehaztua dago.

3.5. Irteerak

Laudio izanik abiapuntua, Aiaraldea inguruko herrietatik irteerak proposatu izana zergati bat dauka. Izan ere, Aiaraldeko baserrien arkitektura txostenean Audioz gain Aiaraldeko beste herrietan bereziak diren baserriak azaltzen dira. Honek esan nahi duena da, ikastetxetik atera izanez gero eta horretarako busa hartu behar izan denez, egun berean adibidez museo batera eta inguruko hainbat baserriren ikerketa egitera

joatea edo baserrian eman den lan baten tailerra ikustera joatea eta herriko museo etnografikora joatea, baserriarekin lotura duelarik.

Irteera hauen proposamenak, hau da, irteera baliatuta jarduera hori burutzeaz gain inguruko baliabideak kontuan hartuz beste leku batzuetara joatea, 11. eranskinean finkatu ditut, irteerak edo tailerrak burutzeko finkatu dudan jarraitu beharreko protokoloarekin batera. Hori horrela, proposatzen ditudan irteerak ez dute orden zehatz bat eta horietako bat ez egitea ez du beste batean eragiten. Nire helburuetako bat azken hau izan da, irakasle bakoitzak askatasun osoa izatea nahi dituen puntuak lantzeko.

4. Egungo egoera eta aurrera begira

Lanketa hau eskoletan burutzeko Eusko Jaurlaritzako HAZI fundazioarekin eta Zabaia Landa Garapenerako elkartearekin, HAZI-ko *Nekazariak Eskolan* egitasmoarekin, Laudion Egin Elkarte Ekologikoarekin eta hauen ekoizleekin eta Laudioko Udaleko Hezkuntza Sailarekin jarri naiz kontaktuan.

Zabaia Landa Garapenerako elkarteak¹⁴, Aiaraldeako landa-inguruaren garapenean lagundu nahi duen erakunde, administrazio zein pertsona orori laguntza eskaintzen dio. Elkarte honek HAZI fundazioarekin harremana du, eta ikastetxeetan izateko materialaren (egutegi biodinamikoak, sasoiko produktuen egutegia,...) eskaera burutuko luke. Gainera, jai-egunen informazioa eta baserritarren kontaktuak erraztuko lituzke.

Laudioko Udaleko Hezkuntza Sailarekin kontaktua mantendu dut, txosten hauek hurrengo urtera begira ikastetxeetara banatu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, Laudioko beste hainbat elkarterekin zein ikastetxeko ordezkariekin bilerak burutzea da nire ideia, txostenei moldaketa txikiak eginez bertako elkarten eskaintza egokitzeke.

Hala ere, horren aurretik planteamendua aurrera eramateko bideragarritasunean eragin dezaketen bi faktoreek ekarpena birplanteatzea egin didate. Alde batetik, baserrien ikerketa emateko baserrietara irteerak burutzea izan da hasiera batean izan dudana zalantza nagusia. Izan ere, baserri guztiak, egoera txarrean eta utzita ez badaude, esku pribatuetan daude eta nahiz eta jabeen kontaktua lortu ahal izan, eurek erakutsi nahi ez izatea gerta daiteke. Horrela, planteamendua aldatuta baserrien kokapena landuko lukete, baina baserrien ikerketa-txostena aukeran utzi dut ikasleren batek edo bere senideren batek baserri izan eta hau ikertzeko aukera egokia izan litekeelako.

¹⁴http://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/pdr_comarcales/es_def/adjuntos/PDR_2016_AIARALDEA.pdf

Bestetik, baserrian elikagaiak lortzeko lanen inguruko lanketa emateko ikasleen ariketa txostena bitan banatzen da; irteera baino lehen eta ostean burutzeko jarduerak zehaztuz. Irteera edo tailer hauen artean ere, jai-egunak edo museoen jarduerak agertzen dira. Hauek data konkretu batean ematen dira, eta hauetako batzuk eskolako ordutegitik kanpo. Hori jakinik, gurasoen inplikazioa lortu nahi da bide batez. Honekin batera, eskolan egun hauekin erlazioa daukan txostena landu nahi izateak presioarekin jardutea suposatuz lezake irakasleari, ikasturte hasieran hainbat jarduera edo tailer burutzen baitira. Halere, irakasleen eskutan aukeraketa hori uztea pentsatu dut, eurek zehazten baitute euren programa.

5. Ondorioak

Dagoena dagoelarik, egin dudan planteamenduak baserriak izan duen eta duen garrantzia azpimarratu, eta ikasleei helarazi nahi die. Nire aburuz, aurretiaz baserria landu ez den modu batean ezagutzea lortuko da gida didaktiko honen laguntzaz. Prozesu hori ematera heltzeko baserriari buruzko bibliografia burutu dut hasiera batean, eta honela hasieran osatu nuen zirriborroa. Horrekin batera hezkuntza ez formalean zer zegoen ikusi eta ikastetxeetan kontraste lana burututa landutakoa aztertu eta zirriborrotako ideiak moldatu eta osatzen joan naiz txosten definitiboak osatzera heldu arte. Hauen lanketarekin zonaldeko baserrien arkitektura ikertzeaz gain, ikasleak eskualdean dagoen ondarearen garrantzia ikustea lortu nahi da, baserrian tradizionalki eman den bizimodua ulertzen lagunduz.

Irakasleek gida hau esku artean izaterakoan ez nuke nahi modu zehatz eta inposatu batean aurrera eramatea; baizik eta, irakasleentzako gida honetako aukeraketa desberdinak egitea eta bere hezkuntza-plangintzan egokiago bat datorren momentuan ezartzea. Izan ere, gida honetan azaltzen diren puntuak euren artean osagarriak direla esan daiteke, baina horietako bat ez lantzeak ez du beste bat mugatzen. Hori horrela, kursoaren hasieran burutzen den plangintzarako lanketa hau izan beharko lukete irakasleek mahai gainean.

Nire eskualdetik abiatuta Euskal Herriko beste txoko askotan nire ideiak lekua izan dezakeela uste dut, baserriaren lanketa honek ez duelako soilik arkitektonikoki zein bertan eman den bizimodua ezagutzera mugatzen. Baserriaren lanketarekin elkarturik, gure aurreko belaunaldien bizitza ulertzea eta barneratzea nahi da sakonean, nortzuk eta nongoak garen ezagutu eta nondik gatozen galderari zeharka erantzuten saiatzen baita.

6. Erreferentzia bibliografikoa

236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. 2017ko azaroaren 18an berreskuratua, http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/ad_juntos/OH_curriculum_oso.pdf orrialdetik.

Aguirre, R., Padura, L. eta Mendiola, G. (2004). *Baserria Aiaran*. Amurrio: Aiara Grafik.

Alberdi, J. C. (2002). El caserío agrícola vasco en proceso de desaparición. *Ería*, 57, 5-17. 2017ko azaroaren 18an berreskuratua, <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/247522.pdf> orrialdetik.

Alberdi, J. C. (2001). Activo envejecido sin recambio generacional en el caserío vasco. *Papeles de Geografía*, 33, 5-21. 2017ko azaroaren 17an berreskuratua, <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/105634.pdf> orrialdetik.

Alberdi, J. C. (2009). Medio rural y abandono de la agricultura. Desarrollo de un ejemplo: el caserío vasco. *Lurralde. Investigación y espacio*, 32, 395-404. 2017ko azaroaren 17an berreskuratua, <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3179601&orden=246855&info=link> orrialdetik.

Arzoz, I., eta Alonso, A. (1998). *Baserri eraitsia: jatorrizkotasunaren adierazpena*. Donostia: Gaiak.

Berriochoa, Pedro (2014). *Como un Jardín: El caserío guipuzcoano entre los siglos XIX y XX*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Bilbao, B. (2003). *Curriculum eta kultura Euskal Herrian*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

Cortázar, M. (2015). *Baserrietara egindako eskola bisitak: Lehen Hezkuntzarako material didaktikoen diseinua, ezarpena eta ebaluazioa*. Gradu Amaierako Lana. Gasteizko Irakasleen Unibertsitate eskola. 2018ko otsailaren 24an berreskuratua, https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15856/GrAL_MaialenArenas.pdf?sequence=1&isAllowed=y orrialdetik.

Dueso, J. (1990). *Nosotros los Vascos: Mitos, leyendas y costumbres II*. (112-178) Bilbo: Lur Argitaletxea S. A.

Dueso, J. (1995). *Nosotros Los Vascos: Julio Caro Baroja IV*. (136-187). Bilbo: Lur Argitaletxea S. A.

- Eguiluz, P. eta Montes, L. (1999). *Llodio, imagenes para la memoria*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Etniker Euskalerrria eta Labayru ikastegia (2011). *Atlas Etnográfico de Vasconia: Casa y Familia en Vasconia*. Bilbo: Labayru ikastegia.
- Etxegoien, J. C. (2016). *Etxea*. Iruña: Pamiela eta Erroa argitaletxeak.
- Ezkurdia, G., Perez, K. eta Bilbao, B. (2013). *Ondarea eskola curriculumaren oinarritzko ekarpenean*. 2017ko azaroaren 19an berreskuratua, <http://eudia.ehu.es/eudia-4/files/Ezkurdia-Perez-Bilbao-2013-Ondarea%20eskola%20curriculumaren%20oinarritzko%20ekarpenean.pdf> orrialdetik.
- Flores, C. (1987). *Arquitectura Popular Española II*. Madril: Aguilar.
- INE (2017). *Araba/Álava: Población por municipios y sexo*. 2018ko otsailaren 24an berreskuratua, <http://www.ine.es/jaxiT3/files/t/es/xls/2854.xls?nocab=1> orrialdetik.
- Moreno, A., Ochoa A. eta Madinabeitia, J. (2017). *Baserriko tresnak eta lanak*. Mondragon Unibertsitatea. 2018ko martxoaren 3an berreskuratua, <http://pruebita.esy.es/wp-content/uploads/2017/04/Baserriko-lanak-proiektua.pdf> orrialdetik.
- Ochoa, M. J. (1965). *Estudio geográfico del Valle de LLodio*. Gasteiz: Montepio Diocesano.
- Ruiz, E. eta Galdos, R. (2005). Reflexiones sobre la desestructuración del caserío vasco. *Investigaciones Geográficas*, 38, 79-91. 2017ko azaroaren 19an berreskuratua, <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/1465882.pdf> orrialdetik.
- Salazar, J. J., Salcedo J., Heredia, P. eta Ortega, A. (2014). *Recuperacion de la memoria colectiva: Laudio-Llodio*. Bilbao: Amalur Fundazioa.
- Santana, A. (1993). *Bertan IV: Baserria*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Turismo Departamentua.
- Santana, A., Larrañaga, J.A., Loinaz, J.L. eta Zulueta, A. (2001a). *Euskal Herriko baserriaren arkitektura: Historia eta tipologia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Santana, A., Larrañaga, J.A., Loinaz, J.L. eta Zulueta, A. (2001b). *Euskal Herriko baserriaren arkitektura: Baserria*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.